

1.995EKO EKAINAREN 17KO BILKURA BEREZIA

UDALAREN ERAKETA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamabosteko ekainaren hamazazpian, goizeko hamarrak direnean, joan den maiatzaren hogeitazortzian egindako Udal Hauteskundeetan aukeratuak izan diren, Jose Antonio Mintegi Arrate, Inaxio Olaetxea Karrera, Ima Zubeldia Luloaga, Julian Zubeldia Aierbe, Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Jaun/Andreek, lehen deialdian bildu dira.

Parte hartzen du eta ekitaldiaren fede ematen du Idazkaria den Ana Jesus Zabala Garmendiak, Udaleko Idazkariak, hain zuzen.

Idazkariak adierazten du batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela, horrela betez, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 Artikuluak eta Udak Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikulua agindutakoa, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea, kasua balitz.

Behin Idazkariak batzarraldiari hasiera emanaz gero, Adineko Mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Errejimenari buruzko Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurrikusitakoa betez, eta Mahai hori osatzen dutenak izango dira, Julian Zubeldia Aierbe, Zinegotzi hautatua zaharrena izanik, mahaiburua izango dena, eta Ima Zubeldia Luloaga Anderea, Zinegotzia hautatu gazteena izanik, Idazkari gisa arituko dena, berau izango delarik, baita ere, batzarraldi honetako Idazkaria.

Mahaiko Idazkariak irakurtzen ditu banan banan alde zuzenetik berari entregatutako kredentzial guztiak, Zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen dutenak, eta Mahaikideek egiaztatu ondoren kredentzial horiek Zonako Hauteskunde Juntak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriek bat datozela ikusten da.

Udaleko Idazkariak, bateraezintasun arrazoien, ihardueren eta ondare ondasunen aitopen bidezkoak aurkeztu izana frogatu duten Korporaziokideen Interes Erregistroetan inskribatzearen ondorioetako:

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE
INAXIO OLAETXE KARRERA
IMA ZUBELDIA LULOAGA
JULIAN ZUBELDIA AIERBE

KORPORAZIOAREN ERAKETA

Aurreko operazioa egin ondoren eta kontuan izanik batzarraldi honetara hautatuak izan diren Zinegotzi guztiak etorri direla, Adineko Mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die zinegotzi hautatuei, Korporazioa formalki eratua aitortzen duelarik.

ALKATEA AUKERATZEA

Idazkariak adierazten die bertan daudenei, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Errejimenari buruzko Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den Batzarraldi berdinean aukeratu behar dela Alkatea ere, lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki.

- Hautagai dira zerrendaburu diren zinegotzi guztiak.
- Hautesle dira bertan dauden zinegotzi hautatu guztiak.
- Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botuen absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez lau botu beharko dira.
- Botazio honetan ez badu lortzen ezein hautagaik gehiengo absolutua, automatikoki aldarrikatuko da Alkate, botu kopururik haundiena lortu duen

zerrendako buru den zinegotzi hautatua. Enpatea gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Txosten honen arabera eta gai honi buruz ditugun aurrekinetan oinarrituz, Alkategai izendatzen dira ondoko zinegotzi hautatuak:

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE, Herri Batasuna alderdiko zerrendaburu dena.

RAMON BONGOETXEA ALTUNA, Lizartzako Herriaren Alde, alderdiko zerrendaburu dena.

Bertaratutako Zinegotziek isilpeko bozketari ekiten diote eta, emandako botuen kontaketa burutu ondoren, honako emaitza hau lortzen da:

<u>HAUTAGAIAREN IZENA</u>	<u>LORTUTAKO BOTUAK</u>
JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE	4
RAMON BONGOETXEA ALTUNA	2

Botu bat, zurin agertu da.

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jauna aldarrikatzen da Alkate.

Jarraian, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jaunak adierazten du, onartu egiten duela Udaleko Alkate kargua eta, karguaren jabetza hartzen du edukitza hau ematen dion Korporazioko Udal Batzarraren aurrean, edukitza horrek barnean dituelarik indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak.

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Alkateak, XABIER IMAZ EIZAGIRRE, Martuteneko Presondegian preso dagoen, Lizartzako herritar intsumisoak aurkeztu duen idatziaren berri eman du, eta honela dio:

Xabier Imaz Eizagirre Lizartzako biztanlea eta Martuteneko Presodengian preso, 2 urte, 4 hilabete eta egun batera zigortua Zerbitzu Militarra eta

prestakuntza sozialaren aurka, Udalerri honetako partidu politikoei zuzentzen zaie eskatze arren:

Bere jarrera adieraz dezaten intsumisoak duten askatasun ezaz eta aldarrika dezaten iritzi publikoari eta eskaera bidaleari.

GU ERE BAHITURIK GAUDE

Intsumiso preso bat

Xabier Imaz Eizagirrek aurkeztutako eskaria aztertu eta eztabaidatu ondoren, intsumiso horren epaiketa zela eta, laurogeitamalauko maiatzaren hemezortzian onartutako mozioa berrestea aho batez onartu da, honela diolarik:

HERRITAR INTSUMISO BATEN EPAIKETA

Militarizazio eta ejertzitoarekiko aurkako joera adierazten duen intsumisioa gazte-sektore askoren aldetik dago onartua eta bereganatua, ejertzitoari eta derrigorrezko soldaduskari uko egiten diotenak egunetik egunera gehiago direlarik. Gizarteak ere bat egiten du gazteekin, ados baitago gizartea neurtzeko erabiltzen dituzten balore berriekin.

Beraz, ez da kasualitatea gure gazte gehienek intsumisioaren aldeko jarrera har dezaten, eta gizarte sektoreen aldetik hainbesteko elkartasuna jaso dezaten.

Estatuak bere ohizko jarrera errepresiboarekin erantzuten du gazte intsumisoak epaituz eta gartzeleratuz, eta halaber ejertzitoari laguntza ukatzen edota Udaletxeetatik elkartasuna esekintzen dietenak ere.

Guzti hau dela eta, Udal Batza honek, hurrengo puntu hauek, aho batez onartu ditu:

- 1.- Orain artean hartutako erabakiak berrestea.
- 2.- Euskal gazteek soldaduska ez egiteko duten eskubidea aldarrikatzea.

- 3.- Lizartzako gaztea den, JOSE JABIER IMAZ EIZAGIRRE gartzeleratzea salatu eta Udalaren elkartasuna adieraztea.
- 4.- Epaitu eta gartzeleratuak izan diren gazte guztien berehalako askatasuna eskatzea.
- 5.- Edonorentzat ere, zilegi dela intsumiso aitortzea, onartzea.
- 6.- Estatuko Gobernuari eskatzen zaio, kontzientzi eragozpenerako legeak aldatzeko neurriak hartzea, espetxeratze zigorrak deuseztatuz eta, beharrezko soldaduska indargabetzea.

Bilkuran dagoen herritar batek, zera eskatu du:

Hartutako erabakia, Xabier Imaz Eizagirre Intsumiso presoari jakineraztea Udalaren elkartasuna adieraziaz, komunikabideetara bidaltzea, Militarrei jakineraztea, eta Udaletxeko balkoian, bera preso dagoen bitartean, bere egoera salatu eta askatasuna eskatuaz, pankarta bat jartzea.

Eskaera, aho batez onartua izan da.

Beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakariak amaitutzat eman du, goizeko hamar t'erdia direnean.